

Ogasun eta Finantza Saila

4/2013 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, irailaren 3koa; honen bidez baimena ematen da zergei buruzko informazioa uzteko, doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzearen.

Espainiako Konstituzioaren 119. artikuluan jasotako aurreikuspena betez, Doako Laguntza Juridikoari buruzko 1996ko urtarriaren 10eko 1/1996 Legeko 3. artikuluan ezartzen da pertsonek zer baldintza bete behar dituzten doako justiziaren onuradun izateko: ez dute ondare ondare nahikorik izan behar eta, gainera, pertsona horiek kontzeptu guztiengatik eta familia-unitate bakoitzeko urtean lortzen dituzten baliabide eta sarrera ekonomiko gordin guztien baturak ez ditu gainditu behar artikuluko horretan bertan ezarritako atalaseak.

Interesdunaren benetako egoera ekonomikoa erakusten duten datuen justifikazioa egin behar da, hain zuzen ere, kasuan kasuko abokatuen elkargoak tramitatutako eskabidearekin batera, eta Doako Laguntza Juridikoko Batzordeak ebatzi behar du. Bada, batzorde horrek, aitortutako datu ekonomikoen zehaztasuna eta benetakotasuna egiaztatzearen, beharrezkotzat jotzen dituen egiaztatpenak egin eta beharrezkotzat jotzen dituen informazioak eska ditzake eta, bereziki, aurkeztutako dokumentazioan agertzen diren zergadatuaren zehaztasuna berrets dezala eska diezaiokoe zerga-administrazio eskudunari.

Beraz, konstituzio-eskubide hori betetzea bermatzen duten prozeduren eraginkortasuna eta efizientzia hobetzearen, foru dekretu arauemaile honek aldatu egin gura du Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araua. Hain zuzen ere, aukera bat jaso nahi da 94.1 artikuluan, zeinaren bidez Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Administrazioak doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzeko beharrezkoak zaizkien datuak laga ahal izango dizkien abokatuen elkargoei.

Arau-aldaketa hori al bait arinen jarri behar da indarrean; hor-taz, premiazotasuna justifikatuta dagoenez, Bizkaiko Lurralde His-

Departamento de Hacienda y Finanzas

DECRETO FORAL NORMATIVO 4/2013, de 3 de septiembre, por el que se autoriza la cesión de información en materia tributaria para el reconocimiento del derecho a la asistencia jurídica gratuita.

En cumplimiento de la previsión contenida en el artículo 119 de la Constitución española, la Ley 1/1996, de 10 de enero, de Asistencia Jurídica Gratuita, establece, en su artículo 3, como personas beneficiarias de la justicia gratuita aquéllas que careciendo de patrimonio suficiente cuenten con unos recursos e ingresos económicos brutos, computados anualmente por todos los conceptos y por unidad familiar, que no superen los umbrales establecidos en el mismo.

La justificación de los datos que permitan apreciar la situación económica del interesado debe realizarse junto con la solicitud tramitada por el Colegio de Abogados que corresponda y debe ser resuelta por la Comisión de Asistencia Jurídica Gratuita, que, con el objeto de verificar la exactitud y realidad de los datos económicos declarados, puede realizar las comprobaciones y recabar la información que estime necesarias y, en particular, requerir de la administración tributaria competente la confirmación de la exactitud de los datos de carácter tributario que consten en la documentación presentada.

En aras a mejorar la eficacia y eficiencia de los procedimientos que garantizan la satisfacción de este derecho constitucional, el presente Decreto Foral Normativo tiene por objeto la modificación de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, con la finalidad de incorporar al apartado 1 del artículo 94 la posibilidad de que la Administración Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia ceda los datos necesarios a los Colegios de Abogados para el reconocimiento del derecho a la asistencia jurídica gratuita.

La procedencia de que esta modificación normativa entre en vigor a la mayor brevedad posible justifica la urgencia de la adop-

torikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 8. artikularen 2. zenbakian jasotako tresna normatiboa erabiliko da neurri hori hartzeko. Izan ere, artikulua horretan ezartzen da Foru Aldundiak, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposaturik, foru dekretu arauemaileak eman ahal izango dituela premiazko arrazoiak direla medio zerga-arauren bat ezarri edo egokitu behar denean, eta xedatzen du horrela emaniko foru-dekretuak berresteko jakinaraziko zaizkiela Batzar Nagusiei.

Hori dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Aldundiak 2013ko irailaren 3ko batzarrean eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DA:

Artikulu bakarra.—Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Araua aldatzea

Beste letra bat, p) letra, gehitzen da Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 94. artikuluko 1 zenbakian, eta honela geratuko da idatzita:

«p) Abokatutzaren Kontseilu Nagusiarekin eta abokatuen elkargoekin lankidetzan aritzea, doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzeko, zergapekoek haiei buruzko datuen inguruko baimena eman ondoren.»

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.—Indarrean jartzea

Foru dekretu arauemaile hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Bigarrena.—Arauk emateko gaitzea

Baimena ematen zaie Bizkaiko Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuari, foru dekretu arauemaile hau garatu eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzaten.

Hirugarrena.—Foru dekretu arauemaile hau berrestea

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 11. artikuluko 9. zenbakiaren eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 8. artikuluko 2. zenbakiaren arabera, foru dekretu arauemaile hau onartu dela jakinaraziko zaie Batzar Nagusiei, berrets dezaten.

Bilbon, 2013ko irailaren 3an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua
JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia
JOSE LUIS BILBAO EGUREN

(I-1372)

ción de esta medida mediante la utilización del instrumento normativo contemplado en el apartado 2 del artículo 8 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, en el que se dispone que la Diputación Foral, a propuesta del diputado foral de Hacienda y Finanzas, podrá dictar Decretos Forales Normativos, por razones de urgencia, y siempre que convenga establecer o adaptar normas tributarias, de los que se dará cuenta a las Juntas Generales para su posterior ratificación.

En su virtud, a propuesta del diputado foral de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación por la Diputación Foral, en su reunión de 3 de septiembre de 2013,

SE DISPONE:

Artículo único.—Modificación de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia

Se añade una letra p) al apartado 1 del artículo 94 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, con la siguiente redacción:

«p) La colaboración con el Consejo General de la Abogacía y con los Colegios de Abogados para el reconocimiento del derecho a la asistencia jurídica gratuita, previa autorización de los obligados tributarios a que se refieran los datos suministrados.»

DISPOSICIONES FINALES

Primera.—Entrada en vigor

El presente Decreto Foral Normativo entrará en vigor el mismo día de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Segunda.—Habilitación normativa

Se autoriza a la Diputación Foral de Bizkaia y al diputado foral de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean precisas para el desarrollo y ejecución del presente Decreto Foral Normativo.

Tercera.—Ratificación

De acuerdo con lo previsto en el apartado 9 del artículo 11 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre elección, organización, régimen y funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, y en el apartado 2 del artículo 8 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, de la aprobación del presente Decreto Foral Normativo se dará cuenta a las Juntas Generales para su posterior ratificación.

Bilbao, a 3 de septiembre de 2013.

El diputado foral de Hacienda y Finanzas
JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

El Diputado General
JOSE LUIS BILBAO EGUREN

(I-1372)